



ORDENANTZA 13. ZK

AGURAINO UDALA ARABAKO LURRALDEA

KONTRIBUZIO BEREZIAK ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
NAGUSIA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, Kontribuzio Bereziak arautzen duen ordenantza onartu du Udalak, udal obrak egiteagatik edo udal zerbitzuak jarri edo handitzeagatik ordaindu beharra.

II. ZERGA GAIA

2. Artikulua

Honakoa da zergagaiaren oinarria: subjektu pasiboak onurarik lortzea edo haren ondasunen balioa gehitzea udal obrak egiten edo udal zerbitzu publikoak jarri edo handitzearen ondorioz.

3. Artikulua

1. Hauek joko dira udal obra eta zerbitzutat:

a) Udalak bere eskumenez baliatuz eta bere gain utzitako helburuak lortzeko egiten dituenak, bere ondareko ondasunen jabea den aldetik egiten dituenak izan ezik.

b) Beste erakunde publiko batzuek bere gain utzita edo eskuordetza emanda Udalak egiten dituenak, bai eta legeriari jarraituz bere titularitate pean geratu direnak ere.

c) Beste erakunde publiko batzuek, edo haien kontzesiodunek, egiten dituztenak, udalak diru ekarpena egiten badu.



2.- Aurreko zenbakiko a) letran aipatu direnak udal obra eta zerbitzutat joko dira honakoek egiten badituzte ere: sozietatearen capital osoa Udalak jarrita duten merkataritza sozietateek eta erakunde autonomoek, udalaren ekarpena duten kontzesiodunek edo VIII. Kapituluari aipatzen diren zergadunen administrazio elkarteek.

4. Artikulua

Kontribuzio bereziak direla eta biltzen diren zenbatekoak eskatzera bultzatu duen obra edo zerbitzuaren gastuak ordaintzeko baino ez dira erabiliko.

III. SUBJETU PASIBOA

5. Artikulua

1.- Kontribuzio berezien subjektu pasiboak honakoak dira: pertsona fisiko edo juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikulua aipatzen dituen entitateak, baldin eta ordaindu beharra sortzen duten obrak egiteak edo udal zerbitzuak jarri edo handitzeak onura berezirik badakarkie.

2.- Hauek izango dira onura berezia ateratzen dutenak:

a) Ondasun higiezienei eragiten dieten obrak egiteagatik edo udal zerbitzuak jarri edo handitzeagatik, haien jabeak.

b) Enpresa ustiaketekin lotutako obrak egiteagatik edo udal zerbitzuak jarri edo handitzeagatik, haien titularrak diren pertsonak edo entitateak.

c) Suteak itzaltzeko zerbitzuak jarri edo zabaltzeagatik ezarri beharreko kontribuzio berezien kasuan, batetik, eragindako ondasunen jabeak eta, bestetik, alor horretan udalerrian diharduten aseguru etxeak.

d) Lurrazpiko galeriak eraikitzeagatik ezarri beharreko kontribuzio berezien kasuan, erabiliko dituzten enpresa hornitzaileak.



3.- Jabetza horizontaleko erregimenaren barruko kasuetan, jabe erkidegoaren ordezkariak jabekideen izenak eta erkidegoan duten partaidetzaren ehunekoa jakinaraziko dizkio udal administrazioari, banakako kuotak libratzeko. Horrela egin ezean, kuota bakarra libratzea onartzen dutela ulertuko da, eta erkidegoa bera arduratuko dela hori banatzeaz.

IV. ZERGA OINARRIA

6. Artikulua

1.- Obrak egiteagatik edo zerbitzuak jarri edo handiatzeagatik Udalak jasaten duen kostuaren 100eko 90ekoa izango da gehienez kontribuzio berezien zerga oinarria. Agintzeko erabakia hartzen duenean zehaztuko du Udalak ezarri beharreko ehunekoa.

2.- Kostua kalkulatzeko kontzeptu hauek hartuko dira aintzat:

a) Adituen lanek, proiektuak idazteak, eta obrak, planak eta programa teknikoak zuzentzeak sortutako kostua.

b) Egin beharreko obren edo zerbitzuak jarri eta handitzeko lanen kostua.

c) Obra edo zerbitzuek betiko okupatu behar dituzten lurzoruen balioa, salbu eta erabilera publikoko ondasunak badira, Udalari doan eta nahitaez lagatako lurzoruak badira edo indarreko legeriaren arabera lagatako higiezinak badira.

d) Eraikinak eraisteagatik edo landaketak, obrak edo instalazioak deusezteagatik ordaindu beharreko kalte-ordainak, bai eta eraitsi edo okupatu behar diren ondasunen errentariei dagozkienak ere.

e) Obra edo zerbitzuetan inbertitu den kapitalaren interesak, Udalak krediturik eskatu behar badu kontribuzio berezien bidez estali ez den zatia finantzatzeko, edo kontribuzioek estalitako zatia finantzatzeko haiek oro har zatikatzen badira.



3.- Obra edo zerbitzuen aurrekontuko kostu osoa aurreikuspen hutsa da eta benetako kostua aurreikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa bada, horixe erabiliko da dagozkion kuotak kalkulatzeko.

4.- 3.1.c) artikuluan aipatutako obra edo zerbitzuen kasuan, edo udalaren ekarpenak dituzten kontzesiodunek —artikulu bereko 2 zenbakian aipatuak— egindakoak badira, kontribuzio berezien zerga oinarria ekarpen horien zenbatekoaren arabera kalkulatu dira, alde batera utzita obra edo zerbitzu berarengatik beste administrazio publiko batzuek ezar ditzaketenak. Edonola ere, artikulu honetako lehen zenbakian aipatu den %90eko muga mantenduko da.

5.- Zerga oinarria zehazte aldera, Udalak jasandako kostua kalkulatzeko udal administrazioak lortzen dituen dirulaguntza edo laguntzen zenbatekoa kenduko zaio kostu osoaren zenbatekoari.

6.- Dirulaguntza edo laguntza kontribuzio bereziaren subjektu pasibo batek emandakoa bada, jasotako zenbatekoa pertsona edo entitate horren kuota konpentsatzeko erabiliko da lehenengo; dirulaguntza edo laguntzaren balioa kuota hori baino handiagoa bada, gainerako subjektu pasiboen kuotak gutxituko dira gero, hainbanatuta.

V. KUOTA

7. Artikulua

1.- Kontribuzio berezien zerga oinarria subjektu pasibo guztien artean banatuko da, obra eta zerbitzuen mota eta izaera kontuan hartuz eta arau hauei jarraituz:

a) Oro har, banaketa modulu gisa, higiezinaren fatxadako metro linealak, azalera, bolumen eraikigarria eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako duten katastro balioa hartuko dira kontuan, denak batera edo banaka.

b) Suteak itzaltzeko zerbitzuak jarri edo hobezeko bada, udalerrian kokatutako ondasunen arriskua estaltzen duten entitate edo sozietateen artean egin daiteke banaketa, aurre-aurreko urtean bildutako primen proportzioan. Subjektu pasibo bakoitzari eskatu beharreko kuota hark bildutako kuoten zenbatekoaren %5etik gorakoa bada, soberakoa hurrengo ekitaldietara pasako da, guztiz amortizatu arte.

c) Ordenantza honetako 5. artikuluko bigarren zenbakiko d) idatz zatian aipatutako obren kasuan, erabiliko dituzten konpainia edo enpresen artean banatuko



da kontribuzio berezien zenbateko osoa, bakoitzari gordetako espazioaren arabera edo obren sekzio osoarekiko proportzioan, berehala erabiltzen ez badute ere.

8. Artikulua

Ezartzekoa den araudiak edo nazioarteko hitzarmenek zerga onurak ematen badituzte, horien onuradunei egokitu ahal zaizkien kuotak ez dira gainerako zergadunen artean banatuko.

9. Artikulua

Ordaindu beharreko kuota zehaztu ondoren, subjektu pasiboak hala eskatzen badu, udalbatzak ordainketa zatitzeko edo atzeratzeko aukera eman dezake, bost urteko eperako gehienez.

VI. ZERGAREN SORTZAPENA

10. Artikulua

1.- Kontribuzio bereziak obrak burututakoan edo zerbitzua ematen hasitakoan sortuko dira. Obrak zatikatzerik badago, obraren zati bakoitza burututakoan sortuko dira zortzapenak subjektu pasibo bakoitzarentzat

2.- Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, kontribuzioa ezarri eta agintzeko erabaki zehatza onartutakoan, kontribuzio bereziak aurretik ordaintzeko eska dezake Udalak, hurrengo urterako aurreikusi den kostuaren zenbatekoaren arabera. Obrak egiteko aurrerakina eskatzen bada, obra horiek amaitu arte ezingo da beste urteko baterako aurrerakinik eskatu.

3.- 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz ordaintzera behartuta dagoen pertsona zein den zehazteko, kontribuzio bereziak sortu diren unea hartuko da aintzat, nahiz eta agintzeko erabaki zehatzean subjektu pasibotzat ageri dena hura onartu zen egunaren erreferentziaz dagokiona izan eta kuoten ordainketa aurreratu badu ere, aurtikulu honetako bigarren zenbakian ezarritakoaren arabera. Agintzeko erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa ageri den pertsonak, horren jakitun, kontribuzioa ezartzea eragin duten onasun edo ustiaketen gaineko eskubideak eskualdatzen baditu, eta hori erabakia hartzen denetik zortzapena sortu arteko aldian gertatzen bada, udal administrazioari egindako eskualdaketa berri eman beharko dio, egiten denez



geroztik hilabeteko epean; ez badu egiten, espedientean subjektu pasibo gisa ageri zenaren aurka jo dezake administrazioak.

4.- Obrak guztiz edo zati betez burutu ondoren, edo zerbitzua ematen hasi ondoren, behin betiko zehaztuko da zein diren subjektu pasiboak, oinarria eta banakako kuotak, dagozkion likidazioak libratuko dira eta aldez aurretik egindako ordainketak konturako entrega gisa konpentsatuko dira. Dagokion obra edo zerbitzurako tributua agintzeko erabaki zehatzean ezarritako araei jarraituz egingo du udal administrazioak behin betiko zehaztapena.

5.- Tibutua sortzen den egunean subjektu pasiboaren izaera ez duen batek egin baditu aldez aurreko ordainketak, edo dagozkien banakako kuotatik gorakoak badira ordainketok, Udalak dagokion itzulketa egingo du, ofizioz.

VII. EZARPENA ETA EGINTZA

11. Artikulua

1.- Kontribuzio bereziak ordainarazteko aurretik kasu zehatz bakoitzari dagokion ezarpen erabakia hartu beharko da.

2.- Kontribuzio berezietz ordaintzekoa den obra bat egiteko edo zerbitzu bat jarri edo handitzeko erabakia ezin izango da gauzatu kontribuzioen agindua onartu arte.

3- Agintzeko erabakia nahitaezkoa izango da; bertan obra eta zerbitzuetarako aurreikusten den kostua zehaztu beharko da, onuradunen artean banatu beharreko zenbatekoa eta banatzeko irizpideak. Agintzeko erabaki zehatzak ordenantza honi jarraitu beharko dio.

4.- Kontribuzio bereziak agintzeko erabaki zehatza hartu eta ordaindu beharreko kuotak zehaztu ondoren, banan-banan jakinaraziko zaizkie subjektu pasiboari, haiek edo haien helbidea ezagunak badira edo, bestela, ediktuen bidez. Interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko diote Udalari eta, hala badagokio, erreklamazio ekonomiko-administratiboa Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari, kontribuzio berezien bidezkoatasuna, onura berezia ateratzen duten pertsonak ordaindu beharreko kostuaren ehunekoa edo esleitutako kuotak direla eta.

12. Artikulua



1.- Udal eskumeneko obra eta zerbitzuak egiteko edo emateko Udalak beste toki erakunde baten laguntza ekonomikoa badu, eta foru arauetan ezarritakoari jarraituz kontribuzio berezirik ezartzen bada, obrak egin edo zerbitzua jarri edo handitzeko ardura bere gain hartzen duen entitateak kudeatuko eta bilduko ditu; hala ere, entitate bakoitzak bere eskumenak gordeko ditu ezartzeko eta agintzeko erabakien arabera.

2.- Erakunde horietakoren batek agintzeko erabaki zehatza onartzen ez badu, jarduteko batasuna ondoriorik gabe geratuko da eta bakoitzak bere aldetik hartuko ditu dagozkion erabakiak.

VIII. HERRITARREN LAGUNTZA

13. Artikulua

1.- Obrek eragindako jabe edo titularrek zergadunen administrazio elkarte bat osa dezakete eta obrak egiteko edo udal zerbitzuak jarri eta handitzeko eskatu. Obra edo zerbitzuaren izaerarengatik dagokienez gain, Udalak jarri beharreko zatia ordaintzeko konpromisoa ere har dezakete, haren egoera ekonomikoa dela eta ezin badu ordaindu.

2.- Halaber, udalak sustatutako obrak egiteak edo zerbitzuak jarri edo handitzeak eragindako jabe edo titularrek zergadunen administrazio elkarte bat osa dezakete kontribuzio bereziak agintzeko erabakia jendaurrean jartzeko epean zehar.

14. Artikulua

Aurreko artikuluan aipatutako zergadunen administrazio elkarteak osatzeko erabakia eragindakoen gehiengo osoak onartu beharko du, baldin eta gutxienez ordaindu beharreko kuoten bi herenen ordezkari badira.

15. Artikulua

1.- Zergadunen administrazio elkarteak gehiengo osoz eta ordaindu beharreko kuoten bi herenen ordezkarietaz hartutako erabakiek gainerakoak behartuko dituzte. Elkarteak, adierazitako quorumaz, batzorde betearazle bat hautatzen badu, hark hartutako erabakiek interesdunak behartzeko indarra izango dute.

2.- 13. artikuluko lehen eta bigarren zenbakietan ezarritakoari jarraituz eratu ondoren, zergadunen administrazio elkarteek obrak eta zerbitzuak beraiek zuzenean gauzatzen uzteko eska diezaiokete Udalari:



Horretarako, baldintza hauek hartuko dira kontuan:

a) Udal administrazioak landutako proiektuan edo, gutxienez, elkarteak aurkeztu eta Udalak onartutako proiektuan ezarritako baldintza eta epeei lotuta gauzatu beharko da lana.

b) Edozein modutan, Udalak izendatutako teknikoen zuzendaritzapean egingo dira.

c) Elkarteak izango du erantzukizuna interes publiko edo pribatuei kalte edo galerarik sortuz gero, bai eta gauzatzea atzeratuz gero edo obra behin betiko jaso eta hurrengo bost urteetan akats ezkuturik agertuz gero.

d) Udalari ahalmena ematen zaio obra eta zerbitzuak gauzatzeko zergadunen administrazio elkarteek egiten dituzten proposamenak onartu edo ezesteko.

e) Udalak obra eta zerbitzuetarako ekarpenik egiten badu, lana behin betiko jaso bezain laster ordainduko du.

IX. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

16. Artikulua

Zerga alorreko arau-hausteei eta horiei ezarri beharreko zigorrei dagokienez, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 77. artikulua eta hurrengoak hartuko dira kontuan.

X. AZKEN XEDAPENA

Zerga ordenantza hau 1990eko urtarrilaren 22an onartu zen behin betiko eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta hala jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte..

AGURAIINGO UDALA
ARABA



AYUNTAMIENTO DE SALVATIERRA
ALAVA

ALKATEA

IDAZKARIA